

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

1. Bezeroei saltzen dieguna guk esaten duguna izatea, bezeroek konfiantza izan dezaten eta horrela gure zerbitzua kontsumitzen jarrai dezaten. Horretarako, saltzen dugun publizitateak % 100 errealak izan behar du, baina, aldi berean, eraginkorra.
2. Mundu guztiarentzat erraza izatea zerbitzua kontsumitzea (nagusientzat soilik dei batekin edo ahal duten bezala zerbitzua esakatzeko eskaintzea eta gazteentzat aplikazio batekin, adibidez).
3. Hornitzaileekin akordioak egitea, haiek gure publizitatea emateko (folletoa, adibidez) edota abantaila ekonomikoak negoziatzeko.
4. Enpresen langileen artean harreman ona izatea, motibazioa bultzatzea, enpresaren produktibitatea gora egiteko eta haien betebeharrak eta eskubideak asetzeko.
5. Bezeroak berez, enpresa aurrera joateko, horretarako publizitatea beharko dugu ere.